FIEZ BLAI

- **Jakintza adarra:** Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- **Gradua/k:**
  Fisika
  Ingeniaritza Elektronikoa
  Gradu Bikoitza: Fisika + Ingeniaritza Elektronikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Sarriena auzoa z/g, Leioa (Bizkaia)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

FIE en acción-FIEz Blai ekimenaren helburua Batxilergoko ikasleak fakultatera urtero modu aktiboan hurbiltzea da; horrela, ikasleek beraien eguneroko esperientziatik hurbil dauden zenbait praktika arrunt egingo dituzte, oro har zientzia eta teknologiarekiko duten erakarpena sustatzeko bide gisa.

Horrez gainera, komunikazio-bide berri bat irekitzen da unibertsitateko eta bigarren hezkuntzako irakasleen artean. Egoera horrek, berriz, gure zereginak eta beharrak hobeto ezagutzeko aukera ematen digu, eta baliteke ikasleen sarbide-profila hobetzea ere.

Funtsean, FIE en acción-FIEz Blai ekimenean proposatzen diren jarduerek bai Fisikan, Ingeniaritza Elektronikoan edo bien Gradu Bikoitzean interesa duten bigarren hezkuntzako ikasleen itxaropenak ase nahi dituzte.

2. LANDUKO DIREN GAIAK/EDUKIAK

- **Difrakzioa eta argi-iturri desberdinen espektroak** (CD/DVD baten bitartez espektroskopio bat eraikitzea; CD/DVD baten pisten neurriaren neurketa, eta abar).
- **Mikrouhin-labea eta Faradayren Kaiola** (uhin elektromagnetiko geldikorren eta haien abiaduraren analisia, "detektagailu" moduan urtzen diren gazta-xaflak erabilita; mikrouhin-labea Faradayren Kaiola moduan erabiltzea, labearen eremu elektromagnetikoaren eraginez, bonbillak piztea; etab.).
- **Indukzio elektromagnetikoa** (ikasleek motorrak eratuko dituzte, metal-harilkatze batekin, pila batekin eta iman batekin).
- **Hutsarekin lotutako esperimentu samurrak eta askotarikoak**: besteak beste, airean dauden objektuetan Arkimedesen bultzadak eragindako ondorioak ikusi ahal izango dira, eta baita Magdeburgoren

hemisferioek egindako atmosfera-presioaren eragina, uhin mekanikoak hedatzeko euskarri materiala nola behar den grabitatearen azelerazioaren konstantzia, etab.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Saio bakoitzean 18 ikaslek hartuko dute parte, eta aipatutako praktiketako 3 gauzatu beharko dituzte. Gainera, Fisika edo Ingeniaritza Elektronikoko ikerkuntzako laborategi bat bisitatuko da.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2027-01-18	Euskara	Goizez	09:30-13:00	18
2027-01-19	Gaztelania	Goizez	09:30-13:00	18
2027-01-20	Euskara	Goizez	09:30-13:00	18